



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Enpresagintza
Fakultatea**

**MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Enpresagintza Fakultatea**

**ATZERRIAN IKASI PROGRAMA
IKASLEAREN GIDA
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan gradua (My Gade)**

2021/22 ikasturtea

1. ATZERRIAN IKASI

Zertan datza?

ATZERRIAN IKASI, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak kudeatzen duen programa da. Honen helburua, ikaslearen nazioarteko dimentsioa indartzea da, atzerriko egonaldietan egindako ikasketen eta kalifikazioen onarpen akademikoaren bitartez.

ATZERRIAN IKASI programari esker, myGadeko ikasleek, hobekuntzak lortu ditzakete, hizkuntzan, kulturen eta heziketan, hauek ikasi egiten baitute beste herrialdeen esperientzietatik eta euren ikasketa diziplinetatik.

Programa honen kudeaketaren oinarria da, Enpresagintza Fakultateak egindako lankidetzak hitzarmenak atzerriko Unibertsitateekin. Hemen, Europakoak eta beste kontinente batzuetakoak sartzen dira. Hitzarmen hauek, Erasmus+ babespean sinatzen dira, edo izan daitezke ere, helburu honekin sinatutako aldebiko hitzarmenak.

Gida honek, informazio garrantzitsua jasotzen du, myGadeko ikasleen programaren garapen zuzenerako, 2019/2020 ikasturterako.

Atzerrian egindako ikasketen onarpen akademikoa

ATZERRIAN IKASI Programaren garapen zuzenak, atzerrian egindako ikasketen onarpena ahalbideratzen du. Hauen oinarria, Fakultateko koordinazio Akademikoak eta Nazioarteko Harremanetarako arloak, balioztatutako ibilbide akademikoa izango da.

Ikasleak jarraituko duen ibilbide akademikoaren diseinua, Europako Erkidegoko Kreditu Akademikoen Transferentziaren Sistemaren babespean egiten da (ECTS). Europarrak ez diren herrialdeen unibertsitateekin, aldebiko hitzarmenetan jasotako baldintzak jarraituko dira. Hau guztia, **ikasketa kontratuan** edo **Learning Agreement-ean** islatzen da. Kontratu hau, ikasleak, jatorrizko Unibertsitateak (Mondragon Unibertsitateak), eta atzerriko Unibertsitateak sinatu beharko dute. Egondariaren iraupena seihilekoa izango da, eta berau burutu ahal izango da, bai lehenengo seihilekoan, zein bigarrenean. Honetarako, erreferentzia bezala, ikaslearen ibilbidea eta bere egoera partikularra hartuko dira kontuan. Bestalde, kontuan hartu beharko da ere, atzerriko unibertsitateko egutegi akademikoa.

Atzerriko unibertsitatean egin beharreko ikasgaien proposamena eta balioztatzea

Nazioarteko Harremanetarako arloak, Unibertsitatea esleitu eta izendapena egin ondoren, **ikasleak, atzerriko unibertsitatean burutu nahi dituen materien proposamena helaraziko dio Titulazioko Koordinazioari, era formalean.** Proposamen honetan, hurrengo datuak jasoko dira: ikasgaiaren izena, kreditu kopurua, eta baita, Exchange Students edo ikasleentzako mugikortasun programari buruzko informazioa jasotzeko esteka, bere ondorengo balioztatzerako.

Proposamenak, hurrengo baldintzak bete beharko ditu:

- Seihileko oso bat balioztatzeko, **proposamenak**, hilabete horri dagokion, **30 ECTS (gutxienez)**, edo gehiago izan beharko ditu. Onartuko den kreditu kopuru handiena 30ekoa izango da. Programa, Europatik kanpo garatzen denean, egin beharreko kreditu kopurua, aldatu egin daiteke, ikaslearen egoera akademikoaren edota mugikortasuna burutzen den herrialdearen arabera.
- Hona hemen, programan parte hartzen duten unibertsitateetan egin beharreko kreditu kopurua:

KREDITU BALIOKIDETASUNA

- Burutu beharreko ikasgaien proposamenean, ez dira kontenplatuko hizkuntza gaitasunak garatzen dituzten ikasgaiak. Titulazioko koordinazioak ezarritako baldintzak beteta daudenean, 30 ECTS, ikasketa esparrutik kanpo dauden beste ikasgai batzuk egin ahal izango dira.
- Proposamenaren elaborazioan, lehentasuna izango dute , posible denean, Enpresagintzan lantzen diren konpetentziekin kidetasuna daukaten ikasgaiak, nazioarteko esperientzia burutzen den seihilekoan.
- Ez da inola ere onartuko, gaindituta dauden ikasgaiak edo hurrengo seihilekorako aurreikusita daudenak egitea, hautazkoak izan ezik. Ez dira onartuko ere, aurreko ikasturteetan egindako ikasgaiak jasotzen dituzten proposamenak.
- Atzerrian egindako ikasgaiak, ez dute balio izango konbalidatzeko, aurreko ikasturteko gainditu gabeko kredituak edo hilabete berean gainditu ez diren ikasgaien kredituak.

- Titulazioko Koordinazioak proposamena aprobatu eta gero, behin atzerrian egonda, destinoko unibertsitatean egin beharreko ikasgaietan aldaketak egongo balira, proposamen berri bat helaraziko behar zaio titulazioko koordinazioari, eta ohiko prozesua jarraituko da, onarpena lortu arte.
- Enpresagintzan gainditu gabeko ikasgaiei dagokienez, horrela jokatu da:
 - ✓ Ikasleak bi aukera izango ditu, batetik aukera dezake, etengabeko ebaluazioaren jarduerak egitea, seihilekoan zehar (aurkezpenak, talde lanak, eta abar...), edo aukera dezake, helburu horretarako ezarriko den ebaluaketa proba bakarra egitea, atzeritik etortzen denean.
 - ✓ Ikasleak, lehengoa aukeratzen badu, bere erabakia jakinarazi beharko dio materiaren irakasleari. Bere ardura izango da.
 - ✓ Ikasleak, bigarren aukera hautatzen badu, atzeritik etortzen denean, mugikortasunaren aurretik gainditu gabe dituen ikasgaien probak egin beharko ditu. Probak egiteko datak berdinak izango dira atzerrian dauden ikasle guztientzat.
- Atzerriko egonaldi akademikoa bukatutakoan, ikasleak, atzerriko unibertsitatean, **Asistentzia Ziurtagiria edo Certificate of Attendance** eskatuko du. Honek, konfirmatu egiten du, ikasleak adostutako ikasketa programa egin duela. Honetaz gain, eskatu egingo du ere, lortutako emaitzak jasotzen duen **expediente akademikoa edo Transcript of Records** deturikoa.
- Ikasleak, dagozkion berreskurapenak egin ondoren, ikasgairen bat gainditu gabe utziko balu, kredituen konbalidazioa, proportzionala izango da, atzerriko unibertsitatean gainditutako kredituen kopuruarekin. Ikasleak, konbalidatutako kreditu kopuruan murrizketa edukiko duenez, hurrengo ikasturtean zehar, koordinazioak proposatutako ikasgaiak egin beharko ditu.

Unibertsitate tasak

ATZERRIAN IKASI programan parte hartzen duen ikasleak ez ditu atzerriko unibertsitateko, unibertsitate-tasak ordaindu beharko. Hala ere, atzerriko unibertsitateak tasa murriztuak ordaintzea eska dezake, ikasle sindikatueta afiliatzeko kostuak edo/eta bestelako material batzuen (fotokopiak, laborategiko produktuak ...) kostuak ordaintzeko; ikasle arruntei kobratzen zaizkien moduan.

Laguntza finantzarioa

Mondragon Unibertsitateak, helburu honetarako, urtero argitaratzen diren bekak kudeatuko ditu: **Erasmus Programaren Espainiako Agentzia, eta Eusko Jaurlaritzak emandakoak. Ikaslearen ardura da** adi egotea, gai honen inguruan egiten diren jakinarazpen eta deiei, eta bere erantzukizuna izango da ere, dokumentazioa eta baldintza orokorrak aurkeztea, dagokion forman eta epean. Azken honetarako, aldeztu aurretik informazioa jasoko dute. Beste finantzazio mota aukerei dagokienez, ikaslea bera izango da, beharrezko kudeaketak egingo dituen.

2. DEIALDIA ETA ESKAEREN AURKEZPENEA

ATZERRIAN IKASI programa, hurrengo baldintzak betetzen dituzten ikasleei egongo da zuzenduta:

- Mugikortasuna, **gradu 3. Ikasturtean** egiten denean, **gaindituta izan beharko dituzte, lehenengo mailako ikasgai guztiak, eta bigarren mailako 30 kreditu ECTS baino gehiago.**
- Mugikortasuna, **gradu 4. Ikasturtean** egiten denean, **gaindituta izan beharko dituzte, bigarren mailako ikasgai guztiak, eta hirugarren mailako 30 kreditu ECTS baino gehiago.**

Eskaeren aurkezpena egiteko, honetarako, Moodle plataforman dagoen Google Forms bete behar da, bide honen bidez, International Experience Team-ek emandako informazioa jarraituz.

Bestalde, ikasleak, atzerriko herrialdearen hautaketaren zergatia azaltzen duen eskutitz bat entregatu beharko du, eta hau lagunduta egongo da, bere B2 maila edo maila handiagoa egiaztatzen duen hizkuntza ziurtagiri ofizialarekin. Hau guztia, honetarako ezarritako epeetan egin beharko da.

Ingeleseko hizkuntza gaitasun maila egiaztatzen ez duen ikasleak, Atzerriko Unibertsitateak eskatutako Common European Framework of References for Languages-aren mailaren baliokidea izango den proba espezifiko bat egin beharko du. Hizkuntza probak BEHIN BAKARRIK egingo dira. Probak egin aurretik, ikasleek hauen berri izango dute Moodle plataformaren bidez.

Ikasleren batek beste hizkuntza baldintza ezberdinak dituzten unibertsitatetan aurkezteko asmoa izanez gero, hautatu dituen unibertsitate horietarako beharrezkoa den hizkuntza maila egiaztatu beharko du

Hizkuntza mailari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, hurrengo orria kontsulta daiteke:

http://europass.cedefop.europa.eu/europass/home/hornav/Downloads/CEF/LanguageSelfAssessmentGrid.csp?loc=es_ES

3. HAUTAGAIEN AUKERAKETA

ATZERRIAN IKASI Programaren ikasleen hautagaitza prozesua, hauen espediente akademikoen eskaerarekin hasten da.

Atzerriko herrialdea esleitzeko, kontuan hartuko dira, ikaslearen **espediente akademikoa** eta honen ingeleseko hizkuntza gaitasun maila. Aukeratutako ikasleen zerrenda, Mudle plataformaren bidez jakinaraziko da.

Aukeratutako ikasleek, proposameneko onarpen dokumentu bat bete eta sinatu beharko dute.

4. ESKAERAREN FORMALIZAZIOA ATZERRIKO UNIBERTSITATERA JOATEKO

Atzerrira joateko eskaeraren kudeaketa, Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako arloko pertsona arduradunen laguntzarekin egingo da. Izendapena, Fakultetetik egingo da. Eskaera formalizatzeko, ikasleak, dagokion dokumentazioa helarazi beharko dio joan beharreko Atzerriko Unibertsitateari.

Bidaiaren kudeaketa eta ostatua, ikaslearen erantzukizuna izango da. Honek, atzerriko unibertsitateak egindako proposamena onar dezake edo nahi izanez gero, beste aukera batzuk bila ditzake.

Atzerriko Unibertsitatean egonaldia eskatzeko beharrezkoa den kudeaketa egin ondoren, eta ikasleak, ezarritako baldintzak betetzen baditu, honek ikaslearen Onarpen Eskutitza bidaliko du. Dokumentu hau ikasleak gordeko du eta kopia bat entregatuko da, Nazioarteko Harremanetarako bulegoan.

5. IKASLEA- MONDRAGON UNIBERTSITATEA KONTRATUA

1. Ikasleak, nazioarteko esperientzian parte hartzen badu, Erasmus+ programapean, atzerriko herrialdera joan aurretik, hitzarmen bat sinatu beharko du Mondragon Unibertsitatearekin. (Ikaslea- Mondragon Unibertsitatea kontratua). Bertan, honako hauek jasoko dira: ikaslearen eskubide eta betebeharrak, egonaldiaren baldintzak zein gainontzeko eskakizun administratiboak, eta ikaslearen kargura egongo den aseguruaren polizarekin erlazionatutako informazioa. Unibertsitateak, honen eskubideak eta betebeharrak jasotzen dituen Erasmus eskutitza emango dio ikasleari.

6. ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Ikasleak, hurrengo dokumentazioa entregatu beharko du Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako bulegoan:

- **Learning Agreement edo Behin betiko Ikasketen Hitzarmena.** Hitzarmena, Dorleta Agirianori bidaliko zaio, posta arruntaren bidez, egonaldia atzerrian hasi ondoren. Behin egonaldia hasita, hau egiteko gehienezko epea hilabete batekoa izango da.
- **Atzerriko Unibertsitateak emandako Egonaldiaren Asistentzia ziurtagiria edo Certificate of Attendance.**
- **Atzerriko Unibertsitateak emandako Transcript of Records edo Ziurtagiri akademikoa.**

Asistentzia ziurtagiria eta ziurtagiri akademikoa, itzuleraren hurrengo astearen barnean egin beharko da. Hau ez egiteak, baldintzatu egingo ditu, Erasmus Bekaren diru kopuru osoa jasotzea edota ikasturte horren ikasgaien konbalidazioa.

Azkenik, ikasleak, ikaslearen balorazio Txosten bat edo Amaierako Txostena bete beharko du, 30 egun baino gutxiagoko epean, Mobility Tool plataforman. Programari itxiera emateko, ikasleek bilera bat izango dute, nazioarteko bilera baloratzeko.

International Experience Team
dagiriano@mondragon.edu / ialzola@mondragon.edu